



ARAUTEGIA

MAHAI TENISA 2026

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Mahai Teniseko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2026ko maiatzaren 23an Irungo (Gipuzkoa) Sonia Etxazarreta Mahai Teniseko Teknikazio Zentroan. Hona hemen arautegia:

1- JOKATZEKO MODUA

TALDEKAKO TXAPELKETA:

4 talde lehiatuko dira. Hauek finalerdiak, 3 eta 4 postuak eta finalak jokatuko dituzte.

Jokalari bakoitzak bi partida jokatuko ditu, ondorioa, emaitzak honako hauek izan daitezke: 8-0, 7-1, 6-2, 5-3 o 4-4. Berdinketa ematekotan (4-4) bi biren aurka partida bat jokatuko da. Binakako partidua jokatze aukera txikia denez, orduko koadroan kontingentzia hori ez sartzea erabaki dugu, lehiaketaren iraupena ez luzatzearen. Hori gertatuz gero, mahai-kopuru txiki bati eragingo liokeenez, uste dugu gerta litekeen atzerapena gerora konpentsa daitekeela.

Talde bakoitzak bere jokalarien txandak zehaztuko ditu. Talde batek ABCD eta besteak XYZW hizkiekin jokatuko du.

Lehiatzeko beharrak direla eta, binakakoa jokatu behar izanez gero, talde bakoitzak egoki deritzen bi jokalaria izenda ditzake.

Partida bakoitza 4 mahai ezberdinetan denbora berean jokatuko da. Partiden ordena honako hau izango da:

A taldea	X taldea
A	X



EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



B	Y
C	Z
D	W
A	Y
B	X
C	W
D	Z
Binaka	Binaka

Talde bakoitzeko lehen bi sailkatuek final aurreak jokatuko dituzte. Partidak 3 set era jokatuko dira.

BANAKAKO TXAPELKETA:

Txapelketa misto bat jokatuko da.

Txapelketa mistoan 16 jokalarik parte hartzen dute, 4 jokalariko 4 multzotan banatuta. Jokalari guztiak hurrengo fasera pasatuko dira. Fase hau horrela antolatuko da:

Final zortzirenak: 8 partidu jokatuko dira aurreko sailkapenaren arabera.

Final laurdenak: Aurreko taldeetako irabazleak eta 1-4 taldeetako lehen sailkatuen artean jokatuko dira.

Ondoren, finalerdiak jokatuko dira, baita hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidak eta finala ere.

Nesken txapelketa talde bakarrean antolatuko da. Ospatu ahal izateko bi lurralde ezberdinetako 6 partaide izan beharko dira gutxienez.

Txapelketa bietan 3 set era jokatuko dira.

2- TALDEEN OSAERA



Partaide guztiak infantil mailakoak izan behar dira, 2012 eta 2013ean jaiotakoak.

Talde bakoitza 4 taldekidek osatuko dute, eta mistoa izan daiteke.

Partidak kamiseta eta praka motz edo gonaz jantzita jokatu beharko dira, eta debekaturik dago txandaleko jaka edo prakekin jokatzea. Talde bereko jokalariek guztiek, gizonezko eta emakumezkoek, antzeko jantziak eraman behar dituzte, baina ezingo dute txuri eta laranja koloreetakoak eraman.

Partaideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

3- JOKORAKO MATERIALA

Antolakuntzak 4 mahai homologatu jarriko ditu, baita pilota ofizialak ere. Jokalarien erraketek egungo araudia bete beharko dute, eta ezingo da kolarik erabili.

4- SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldeka: lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuek garaikurrak jasoko dituzte.
- Banaka: urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak jasoko dituzte.

5- EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.



6- AZKEN OHARRA.

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Mahai Teniseko Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.



EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



ORDUA	1. MAHAIA	2. MAHAIA	3. MAHAIA	4. MAHAIA	ORDUA		
	SELEKZIOEN TALDEA						
T A L D E K A K O A	10:00	BIZKAIA "A"/ARABA "B" A-X Partidak	BIZKAIA "A"/ARABA "B" B-Y Partidak	BIZKAIA "A"/ARABA "B" C-Z Partidak	BIZKAIA "A"/ARABA "B" D-W Partidak	10:00	
	10:15	BIZKAIA "A"/ARABA "B" A-Y Partidak	BIZKAIA "A"/ARABA "B" B-X Partidak	BIZKAIA "A"/ARABA "B" C-W Partidak	BIZKAIA "A"/ARABA "B" D-Z Partidak	10:15	
	10:30	BIZKAIA "B"/ARABA "A" A-X Partidak	BIZKAIA "B"/ARABA "A" B-Y Partidak	BIZKAIA "B"/ARABA "A" C-Z Partidak	BIZKAIA "B"/ARABA "A" D-W Partidak	10:30	
	10:45	BIZKAIA "B"/ARABA "A" A-Y Partidak	BIZKAIA "B"/ARABA "A" B-X Partidak	BIZKAIA "B"/ARABA "A" C-W Partidak	BIZKAIA "B"/ARABA "A" D-Z Partidak	10:45	
	11:00	3. ETA 4. POSTUAK A-X Partidak	3. ETA 4. POSTUAK B-Y Partidak	3. ETA 4. POSTUAK C-Z Partidak	3. ETA 4. POSTUAK D-W Partidak	11:00	
	11:15	3. ETA 4. POSTUAK A-Y Partidak	3. ETA 4. POSTUAK B-X Partidak	3. ETA 4. POSTUAK C-W Partidak	3. ETA 4. POSTUAK D-Z Partidak	11:15	
	11:30	FINAL A-X Partidak	FINAL B-Y Partidak	FINAL C-Z Partidak	FINAL D-W Partidak	11:30	
	11:45	FINAL A-Y Partidak	FINAL B-X Partidak	FINAL C-W Partidak	FINAL D-Z Partidak	11:45	
	12:00	MIXTO 1. TALDEA 1 4	MIXTO 2. TALDEA 1 4	MIXTO 3. TALDEA 1 4	MIXTO 4. TALDEA 1 4	12:00	
	12:15	MIXTO 1. TALDEA 2 3	MIXTO 2. TALDEA 2 3	MIXTO 3. TALDEA 2 3	MIXTO 4. TALDEA 2 3	12:15	
	B A N A K A K O A	12:30	MIXTO 1. TALDEA 1 3	MIXTO 2. TALDEA 1 3	MIXTO 3. TALDEA 1 3	MIXTO 4. TALDEA 1 3	12:30
		12:45	MIXTO 1. TALDEA 2 4	MIXTO 2. TALDEA 2 4	MIXTO 3. TALDEA 2 4	MIXTO 4. TALDEA 2 4	12:45
13:00		MIXTO 1. TALDEA 1 2	MIXTO 2. TALDEA 1 2	MIXTO 3. TALDEA 1 2	MIXTO 4. TALDEA 1 2	13:00	
13:15		MIXTO 1. TALDEA 3 4	MIXTO 2. TALDEA 3 4	MIXTO 3. TALDEA 3 4	MIXTO 4. TALDEA 3 4	13:15	
BAZKARIA							
14:30		MAHIA 1 MIXTO Zortzinerak	MAHIA 2 MIXTO Zortzinerak	MAHIA 3 MIXTO Zortzinerak	MAHIA 4 MIXTO Zortzinerak	14:30	
14:50		MAHIA 1 MIXTO Zortzinerak	MAHIA 2 MIXTO Zortzinerak	MAHIA 3 MIXTO Zortzinerak	MAHIA 4 MIXTO Zortzinerak	14:50	
15:10		MAHIA 1 MIXTO Laurdenak	MAHIA 2 MIXTO Laurdenak	MAHIA 3 MIXTO Laurdenak	MAHIA 4 MIXTO Laurdenak	15:10	
15:30	MAHIA 1 MIXTO Final erdiak	MAHIA 2 MIXTO Final erdiak			15:30		
15:50	MAHIA 1 MIXTO Finala	MAHIA 2 MIXTO 3. eta 4. postuak			15:50		
SARI BANAKETA							